

---

PRENTSA OHARRA

## **ESPAZIO ONIRIKO ETA ARRARO BATEAN BIHURTZEN DA URAZURRUTIA ARETOA BILBAOARTEKO ERAKUSKETA BERRIAN**

Marrazki eta eskultura erakusketa honen atea martxoaren 25etik apirilaren 17ra izango ditu zabalik BilbaoArtek

*(Bilbon, 2019ko martxoaren 22an).* 2018an zentroan bekadun izandako Álvaro Albaladejo eta Cristina Ramírezen *'El pozo y la pirámide'* erakusketa inauguratuko du BilbaoArtek. Fundazioaren lantegietan ekoiztuta eta beste sei proposamenen batera aurreko abenduan aukeratuta, Urazurrutia Aretoan izango den lehen erakusketa bikoitza izateagatik bereizten da. Marrazketa, eskultura eta instalazioaren bidez, espazio oniriko eta arraro batean bihurtzen da aretoa, izu kosmikoan inspiratutako paisaiak eta asaldura mentalak sortzen dituzten irudiak iradokitzen dituzten lanen bidez. *'El pozo y la pirámide'* 19:30ean inauguratuko da eta apirilaren 17ra arte egongo da ikusgai.

*'El pozo y la pirámide'* Cristina Ramírez eta Álvaro Albaladejok BilbaoArte Fundazioan egoile bezala egindako lanen aukeraketa biltzen du. Erakusketa, Urazurrutia Aretoan aurkeztu dena eta Javier Sánchez Martínez izan duena komisario, bi proposamen ezberdinen arteko elkarrizketa bat bezala antolatzen da, hondoan izua eta haluzinazioa partekatzen dutelarik.

Izu kosmikoaren espekulazioekin lerro-lerro lan egin du **Cristina Ramírezek** azken urteetan, H.P. Lovecraft-ek inauguratutako genero literarioa. "Genero honen ezaugarri nagusia gizakiarentzat guztiz ulertezin eta axolagabea den mundu baten existentzia suposatzea da. Mundu hori gure munduaren barruan kokatzean oinarritzen da Lovecraften paradoxa". Hori dela eta, Ramírezen lanetan bizi diren izakiak indar ia abstraktuak dira, «zerutik jauzi zen kolorea» bezala edo «denbora baino harantzago dagoen itzala».

Literaturak hurbiltzen duen moduan, pertsonai eta bilben bidez, hurbildu ordean, gizakia ezabatzen du ekuazioatik Cristinak eta paisaia eta arkitektura dramatizatzen ditu. Komikia eta ilustrazioatik edaten duen lengoia batekin, artistak giro eta gertaeren bidez indar ezezagun hauek gauzak eraldaketa bortizetara nola oinperatzen dituzten azaltzen du.

Ikuspegia bere mugetara jaurtitzeko, gailuak sartzen ditu eskulturetan **Álvaro Albaladejok** kontzientzia-egoera asaldatuen moduko esperientziak eragiteko helburuarekin. Bere lanek martxan ipintzen dituzten haluzinazio-teknologiaren artean

amarrua, animazioa eta errepikapena daude. Era berean, itxura eta materialen ohiz kanpoko efektuez baliatzen da. Albaladejok esperientzia pertzeptiboa asaldatzeko kiribilak, espazio negatiboak edo azalera irisatuak erabiltzen ditu.

Erakusketa honetarako haluzinazioaren isurialde geometrikoan sakontzen duen lan sail bat egin du Alvarok. Triangelua, piramidea eta obeliskoaren bidez, itxura hauek eragiten dituzten tentsioak eta gatazka bisual eta espazialak esploratzen ditu, ikaztutako zuran begiak forma eta hondoaren arteko mugak aurkitzera desafiaturik edo margo termokromikoaren tenperaturaren arabera kolorea aldatuz.

Erakusketa ikusgai egongo da astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:30era, martxoaren 25etik apirilaren 17ra arte. Doako sarrera.

## ARTISTEI BURUZ

**Álvaro Albaladejo** (Granada, 1983) Granadan bizi eta bertan lan egiten duen eskultorea da. Arte Ederretan lizentziatu zen Granadako Unibertsitatean, Munichgo Akademie der Bildenden Künsten egonaldi bat burutuz. Bere azken bakarkako erakusketen artean hauek dira azpimarragarrienak: FACBA proiektuaren barruan Zaida aretoan aurkeztutako *El fin del universo* (2018); *Vueltas y penumbras* (2017) PTS aretoa eta Granadako Aldundiaren Palacio de los Condes de Gabian aurkeztutako *El ojo y el vértice* (2016).

**Cristina Ramirez** (Toledo, 1981) Artearen Historia (Madrilgo Unibertsitate Complutentsea) eta Arte Ederretako (Granadako Unibertsitatea) ikasketak burutu ditu. DKV-Makma marrazketa saria jasotzen du, Complutentse Fundazioaren Joven sariarekin batera eta Iniciarte programako produkzio laguntzetan hautatua da. Eslovenia (BB-Art Colony) edo Italiako (CasaFalconieri) arte egoitzetan parte hartu du eta bere lana bakarka edo taldeka Madril, Valentzia edo Granadako aretoetan erakutsia izan da.

## Informazio gehiago / Más información



**Fundación BilbaoArte Fundazioa**

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | [prentsa@bilbaoarte.eus](mailto:prentsa@bilbaoarte.eus)

---

NOTA DE PRENSA

## **LA SALA URAZURRUTIA DE BILBAOARTE SE TRANSFORMA EN UN ESPACIO ONÍRICO Y EXTRAÑO EN SU NUEVA EXPOSICIÓN**

La sala de exposiciones de BilbaoArte, tendrá abiertas las puertas de esta muestra de escultura y dibujo entre el 25 de marzo y el 17 de abril

*(Bilbao, 22 de marzo de 2019).* BilbaoArte inaugura la exposición *'El pozo y la pirámide'* de Álvaro Albaladejo y Cristina Ramírez, artistas residentes en el centro durante 2018. Producida en las instalaciones de la fundación y elegida junto a otras seis propuestas el pasado mes de diciembre, destaca por ser la primera exposición conjunta seleccionada para la Sala Urazurrutia. A través del dibujo, la escultura y la instalación, la sala se convierte en un espacio onírico y extraño con paisajes inspirados en el horror cósmico y piezas que sugieren imágenes fruto de alteraciones mentales. *'El pozo y la pirámide'* se inaugura a las 19:30 horas y podrá visitarse hasta el 17 de abril.

*'El pozo y la pirámide'* reúne una selección de trabajos realizados por Cristina Ramírez y Álvaro Albaladejo durante su período de residencia en la Fundación BilbaoArte. La exposición, que se presenta en la Sala Urazurrutia y está comisariada por Javier Sánchez Martínez, se organiza como un diálogo entre dos propuestas independientes que comparten el horror y la alucinación como fondo.

Desde hace varios años **Cristina Ramírez** aborda sus trabajos en línea con las especulaciones del horror cósmico, un género literario inaugurado por H.P. Lovecraft. "El rasgo fundamental de este género consiste en suponer la existencia de un mundo completamente incomprensible e indiferente al ser humano. La paradoja de Lovecraft radica en situar ese otro mundo dentro del nuestro". Debido a ello, los seres que habitan la obra de Ramírez son fuerzas casi abstractas, como el «color que cayó del cielo» o «la sombra más allá del tiempo».

En lugar de aproximarse como lo hace la literatura, a partir de tramas y personajes, Cristina elimina al ser humano de la ecuación y dramatiza el paisaje y la arquitectura. Con un lenguaje que bebe del cómic y la ilustración, la artista muestra a través de atmósferas y acontecimientos cómo esas fuerzas desconocidas someten las cosas a violentas transformaciones.

Con el fin de arrojar la visión contra sus límites, **Álvaro Albaladejo** introduce una suerte de dispositivos en las esculturas destinados a provocar experiencias cercanas a los estados alterados de conciencia. Entre las tecnologías de la alucinación que sus obras ponen en funcionamiento se encuentran el trampantojo, la animación y la repetición. A su vez, Albaladejo se vale de los efectos inusuales de ciertas formas y materiales como las espirales, los espacios negativos o las superficies iridiscentes para perturbar la experiencia perceptiva.

Para esta exposición Álvaro ha realizado una serie de trabajos que indagan en la vertiente geométrica de la alucinación. A partir del triángulo, la pirámide y el obelisco el artista explora las tensiones y conflictos visuales y espaciales que provocan este tipo de figuras, al retar al ojo a encontrar el límite entre figura y fondo en la madera carbonizada o al alterar el color en función de la temperatura de la pintura termocrómica.

La exposición permanecerá abierta de lunes a viernes de 17:30 a 20:30 entre el 25 de marzo y el 17 de abril. Entrada gratuita.

## **SOBRE LOS ARTISTAS**

**Álvaro Albaladejo** (Granada, 1983) es escultor, reside y trabaja en Granada. Se licenció en Bellas Artes por la Universidad de Granada, realizando una estancia en la Akademie der Bildenden Künste en Munich. Entre sus últimas exposiciones individuales destacan: El fin del universo (2018) Sala Zaida dentro del proyecto FACBA; Vueltas y penumbras (2017) Sala PTS y El ojo y el vértice (2016) Palacio de los Condes de Gambia de la Diputación de Granada.

**Cristina Ramírez** (Toledo, 1981) se forma en Historia del Arte (Universidad Complutense de Madrid) y en Bellas Artes (Universidad de Granada). Recibe el premio de dibujo DKV-Makma, el Premio Joven de la Fundación Complutense y es seleccionada por el programa Iniciararte de ayudas a la producción. Ha disfrutado de residencias en Eslovenia (BB-Art Colony) o en Italia (Casa Falconieri) y su obra ha sido expuesta de manera individual y colectiva en salas de Madrid, Valencia o Granada.

### **Informazio gehiago / Más información**



**Fundación BilbaoArte Fundazioa**

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | [prentsa@bilbaoarte.eus](mailto:prentsa@bilbaoarte.eus)